BIZITEGI ERAIKINA — URBIETA 47

D MAILA



Egilea eta data: Luis Elizalde; 1905

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena, gehi 1926an eraikitako txapituladun jasodura bat estalkipean. Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokia duena atariaren parean dagoen eskuinaldeko baoan. Apainduran, sekzioan, egiletzan eta datan izaera berekoa Urbieta 45 eta 49rekin (jatorrizko proiektu komuna dute).

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura (6. goi oina estalkipean).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.